


ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA (EKI), 2009KO ABENDUA

Euskal AEko eraikuntzako kostuak %0,4 igo ziren 2009ko abenduan aurreko hilaren aldean

2009. urte osoan %0,3 jaitsi dira eraikuntzako kostuak

2009ko abenduan, eta azaroarekin alderatuta, Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea %0,4 igo zen EUSTATEN datuen arabera. Urte osoko tasak %0,3ko jaitsiera izan zuen 2008ko abenduaren aldean.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1997-2009 (*)



(*) Abenduko urte arteko tasak
Iturria: EUSTAT

Urte arteko aldiari (2008ko abendutik, 2009ko abendura), lan-eskuaren kostua %2,4 handitu da eta lehengaien kostuak, berriz, %1,0 jaitsi.

Abenduan Etxegintza eta Obra Zibila azpisektoreek antzeko bilakaera izan zuten lehengaien kostuari dagokionez. Etxegintzaren atalean %0,6ko igoera aurreko hilaren aldean, eta Obra Zibilarenean %0,4koa. Bi azpisektore horien urte arteko bilakaeran badira zenbait ezberdintasun: Etxegintzako lehengaien kostuak %1,4 jaitsi ziren; Obra zibilekoak, berriz, %0,6 igo.

Sektoreak kontsumitutako lehengaien artetik, hauek izan zituzten inflazio-tasarik handienak urte artekoan: Petrolioa fintzea (%20,5), Ura (%7,4), Ez-metalezko industria (%2,5), Altzarigintza (%1,6). Aitzitik, urte arteko prezioetan (2009ko abendua, 2008koaren aldean) murrizketak izan dituzte Metalurgiaren (%-16,3), Energia elektriko eta gasaren (%15,3), Material elektrikoaren (%-4,7) eta Industria Kimikoaren (-3,7) lehengaiak.

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE / DATU AURRERAPENA

2009KO ABENDUA

GOIBURUAK	INDIZEA 2005 = 100 Oinarria	GEHIKUNTZAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
KOSTUA GUZTIRA	116,2	0,4	-0,3	-0,3
ERAIKINAK	116,2	0,5	-0,7	-0,7
OBRA ZIBILA	116,0	0,3	1,1	1,1
LEHENGAIEN KOSTUA	115,3	0,5	-1,0	-1,0
ERAIKINAK	115,5	0,6	-1,4	-1,4
OBRA ZIBILA	114,7	0,4	0,6	0,6
LAN-ESKUAREN KOSTUA	119,4	0,0	2,4	2,4

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp